

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### **Ondare izaerako ondasun higiezinatarako Ekinbide izeneko zentroa arautzen duen ordenantza behin-betikoz onarpena**

Udalbatzak, 2014ko abenduaren 29ean egindako batzarrean, beste batzuen artean, honako Erabaki hau hartu zuen:

Lehena. Ondare izaerako ondasun higiezinatarako Ekinbide izeneko zentroa arautzen duen ordenantza behin-betikoz onartzea.

Bigarrena. Aipatutako Ordenantza arautzailea bere osotasunean ALHAON argitaratzea.

#### **ONDARE IZAERAKO ONDASUN HIGIEZINATARAKO "EKINBIDE" IZENKO ZENTROA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

##### ZIOEN AZALPENA

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren egoerak justifikatu egiten du gune bat egokitzea udalerriko ekonomiaren eta enpleguaren sarea erraztu eta indartzeko. Udalerrian gutxiegi erabiltzen diren hainbat gune ditugu, eta gainera ez dute izan dezaketen gaitasunerako gizarte erabilerarik, baina horietan enpresen jarduera bultzatzera eta enpresak sortzera bideratutako guneak sor litezke. Egoera horrek justifikatu egiten du gune horien erabilera eta funtzionamendua arautuko duen ordenantza hau garatzea.

"Ekinbide" sortzeak egokitzeko gaitasuna duen ekintzailtza-gune bat ekarriko du. Gune horrek ahalbidetu egingo du negoziarako aukerak identifikatzea, enpresa berriak sortzea eta era berean enplegua.

Azken garai hauetan, benetan beharrezkotzat jo da udalerrian mota hauetako guneak izatea, hainbat arrazoi tarteko:

- Enpleguaren arloko proiektuetarako erreferente gisa balioko duen gunea izateko beharra.
- Enpresa jarduera sortzen duten udaleko edo eskualdeko ekimenetatik sortutako ekimenak jasotzeko guneak izateko beharra.
- Udaleko beste laguntza eta diru-laguntzen beste linea batzuek gain baliabide osagarriak izatea (kontratatzeko laguntzak, ekintzaile izatekoak, lokalak irekitzekoak, e.a.).

Azken batean, ordenantza hau sortzearen xedea da lanbide anitzetarako gunea eskaintzea, zenbait ekintzaileri gune berbera erabiltzeko aukeraz gain, ideiak, esperientziak eta ezagutzak ere partekatzeak aukera ematea, enpresen ekimen berriak abian jartzea eta sendotzea errazte aldera. Era berean, asmoa da enpresak abian jartzera eta udalerrian sor daitezkeen enpresen lehenengo hilabeteetako jarduera hartzera bideratutako udal guneak arautzea, eta horrez gain enpresen ideia garatzen lan egiteko gune bat eskaintzea.

#### I. TITULUA. EKINBIDE IZENKO ZENTROAREN XEDAPEN OROKORRAK

##### **1. Artikulua – Definizioa**

Ekinbide zentroa ordenantza honek arautzen duen udal zerbitzua da. Izaera publiko eta balioaniztun gisa eratu da eta Barrundiako Udalak berak edo beste erakunde publiko edo pribatuaren batek tokiko ekonomia jarduerari laguntzeko, babesteko eta garatzeko beste zerbitzu edo

elementu batzuekin batera daiteke, berez edo hirugarren laguntzarekin. Xedea da babesaren emanez udalerriko esparru geografikoetan enpresen ekimen berriak edo duela gutxiak sustatzea, horrek eragin ona duelako udalerrian enplegua sortzeko eta ekoizpen egitura aberasteko.

## 2. Artikulua – Xedea

Ordenatza honen xedea da Barrundiako EKINBIDE udal zentroaren ondare izaerako higiezi-netako gune partekatuen erabilera eta funtzionamendua arautzea. Zentro hau ekimen publikoko gune fisiko gisa sortu da, eta xedea da enpresa berriak ezartzeko, abian jartzeko eta sendotzeko erraztasunak ematea edo jada existitzen diren enpresak bidegarri egitea, ondoren merkatuan sartzeko. Horrela, udalerrian enplegua eta ekoizpen egituraren aberastasuna sortuko da.

Horretarako, Barrundiako Udalak arautu egingo du enpresak aipatu zentroan dauden guneetara sartzeko, ordenatza honetan ezarritako baldintzei jarraikiz, eta enpresetako proiektuak babestu, lagundu eta zuzenduko ditu, baita aipatu helburuak lortzera bideratutako jarduketarako programak egin ere.

## 3. Artikulua – Lege Araubidea

Onartzen diren kostubidezko erabilen emakidek, ordenatza honekin bat etorriz, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan, Toki errejimeneko alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua arautzen duena, ekainaren 13ko 1372/1986 Erret Dekretuan, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamenduan, Toki Araubidearen inguruko gainerako legedian eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatzen dena beteko dute.

## 4. Artikulua – Kokapena

Ekinbide zentroan hainbat lokal egongo dira, zehazki, leku honetan:

Udaletxe zaharra.

Kulturako eraikuntza zaharra.

Udaletxeko plaza, 1. Ozaeta.

Aipatu eraikinak ondare-ondasun izaera du, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamendua onesten duen ekainaren 13ko 1732/86 E. D.aren 6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hori guztia gerora begira herri jabariko ondasun gisa edo berezko ondasun gisa sailkatutako beste lokal batzuek zerbitzu horrekin bat egiteko aukeran eragin gabe.

Udaletxe zaharraren helbidean dagoen lokalean, Udaleko Enpresen Zentro Partekatura bideratuko dira honako bulego eta zerbitzu hauek:

### • Udaletxe zaharra:

- Udalbatza aretoa: 68,04 m<sup>2</sup>.
- 1. Bulegoa: 12,79 m<sup>2</sup>.
- 2. Bulegoa: 11,17 m<sup>2</sup>.
- Lehenagoko irakurketa-gela: 52,74 m<sup>2</sup>.
- 1go. Solairuko gelak: 68,95 m<sup>2</sup>.
- Udalbatza aretoa: 24,22 m<sup>2</sup>.

### • Kulturako eraikuntza zaharra:

- 1. Aretoa. Andozketa: 36,30 m<sup>2</sup>.
- 2. Aretoa.....: 32,90 m<sup>2</sup>.

Barrundiako Udala da Ekinbide zentroaren titularra, eta berari dagokio bertan eskeintzen diren zerbitzu guztiak antolatzea, kudeatzea, koordinatzea eta jarraipena egitea. Horretarako, eta ordenantza hau garatzeko, behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu.

#### **5. Artikulua – Zerbitzu partekatuak ematea**

Ekinbide udal zentroak jarraian zehazten diren zerbitzu eta azpiegitura partekatu hauek izango ditu:

- Telefonoz hitz egiteko aukera.
- Fax zerbitzua.
- Internetarako sarbidea.
- Gune partekatuak garbitzea eta oinarrizko garbitasuna egitea.
- Eraikinaren mantentze-lan integrala.
- Hornidurak (ura, argia, berogailua).
- Biltegia.

### **II. TITULUA. ERABILERAREN EMAKIDAREN ARAU OROKORRAK**

#### **6. Artikulua – Enpresa edo erabiltzaileentzako erabilerak lagatzea**

Enpresa berrietarako edo sendotzeko prozesuan dauden enpresetarako:

– Aldi baterako bulegoa: gehienez ere lau urtera arte erabili ahal izango da aldi baterako bulegoa. Horrela, hamabi hilero ebaluazio bat egin beharko da helburuak betetzen diren egiaztatzeko, eta egonaldia beste urte bi luzatu ahal izango da, enpresa hobeto sendotze aldera. Horretarako, eskatzen den dokumentazioaren bidez egiaztatu behar dira kontabilitate egoerak eta hori behar bezala frogatzeko eskatzen den informazio guztia, baita garapenaren edo jarraitzeko beharrezkoaren justifikazioa ere, bi kasuetan.

– Egoitza sozial gisa baimena ematea: lau urteko baimena emango da, eta bi urtera arte luzatu ahal izango da, aurreko paragrafoan deskribatutako baldintzak betetzen badira, Ekinbide enpresa eskatzailearen egoitza sozial gisa erabiltzeko. Horrela, zerbitzu partekatutak erabiltzeko baimena izango dute, aurreikusitako barne araubidearen araudiari jarraikiz.

#### **7. Artikulua – Ordenantza honek bultzatzen duen xedera bideratutako guneen erabilera lagatzea**

Ordenantza hau aplikatetik eratorritako guneen erabileraren emakidak ondare ondasun gisa edo berezkoen ondare gisa kalifikatutako kostubidezko erabileraren izaera izango du, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Erret Dekretuan, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamenduan jasotako arauetan, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta toki araubideari buruzko gainerako legerian ezarritakoaren arabera arautuko da.

#### **8. Artikulua – Erabileraren emakida formalizatzea**

Aldi baterako erabileraren emakida dagokion erabileraren edo alokairuaren lagapen pribatuaren kontratuaren bidez formalizatuko da, bi aldeek sinatuta, eta esleipendunak hitzemango du zentroak funtzionatzeko arauak betetzen dituela. Horretarako, hogeita hamar eguneko epea izango dute, erabiltzeko emakida jakinerazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

#### **9. Artikulua – Iraupena**

Erabileraren emakidak lau urteko iraupena izango du, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, 6. artikuluan ezarritakoan eragin gabe, luzapen arruntaren bidez, Alkatezari alde aurretik eskaera eginda. Hori kontratua fiskalizatu baino lehenagoko hilabetean egin beharko da. Udal honetan eskumena duen arloak erabakiko du bidezkoa den edo ez eskatzen diren luzapenak ematea.

### 10. Artikulua – Okupazioa iraungitzea

Ordenantza honetan adierazten diren baimenak honako arrazoi hauengatik iraungiko dira:

- Deialdian aurkeztu zen Enpresa Plana justifikatu gabe ez betetzea, bereziki aurreikusitako baremazioa edo ebaluazioa behar duten alderdiei dagokienez.
- Emakidaduna hil egin delako edo ezintasuna duelako, edo nortasun juridikoa iraungi delako.
- Emakidadunaren izaera juridikoa besterentzea edo aldatzea, bat egitea, xurgatzea edo iraungitzea.
- Epea amaitu delako iraungitzea.
- Alde biek adostuta.
- Hileroko ordainketa ez ordaintzeak edo atzeratzeak bi hilabetez jarraian edo aldizkako hiru hilabetetan, baimena bertan behera geratzea ekarriko du.
- Lagapen-hartzailearen titularrak dituen betebeharretan beste arau-hauste larriren bat egitea.
- Ordenantza honetan berariaz aurreikusitako beste edozein arrazoi.

Erabilera iraungitzeko, nahitaezkoa izango da dagokion administrazio espedientea abiaraztea aldeztetik kaltetuari entzunaldia emanda.

### 11. Artikulua – Fidantzak

Lokal edo bulegoen esleipena jasotzen dutenek kontuan sartu beharko dute fidantza gisa udaleko diruzantzak adierazten duen zenbatekoa, eskatzen den gunearen erabilera lagatzeko kontratu pribatua aldeztetik sinatuta. Zehazki, hileko alokairuaren bi kuoten zenbateko bera izango da. Aipatu zenbatekoa ordaintzen ez bada, emakidari uko egin zaiola ulertuko da.

Fidantza lagapen-hartzaileak lagapena amaitu ondoren lokalean eragin ahal izan duen edozein kalte edo hondamenen menpe geratuko da. Era berean, ordainketari ezarriko zaio ordaintzeko gera litekeen beste edozein kuota.

## III. TITULUA. ONURADUNAK

### 12. Artikulua – Onuradunak

1. Honako hauek izan daitezke Ekinbideko guneen onuradun:

– Enpresa berriak. Halakotzat joko dira enpresen zentro partekatuan sartzeko deialdia behar bezala argitaratu den urtean ekonomia jardueren gaineko zerga fiskalen erroldetan alta eman duten edo emango duten enpresako proiektuak.

Helburua da enpresako proiektu berriak, berritzaileak eta enplegua sortzen dutenak garatzea.

– Sendotzeko bidean dauden enpresak. Halakotzat joko dira zentroan sartzeko eskaera egin aurreko urtean ekonomia jardueren gaineko zergen erroldan alta eman duten eta abian dauden enpresak.

Xedea izango da jada sortu diren enpresak sendotzen laguntzea, jada abian diren enpresak lehiakortasuneko kota altuagoetara hurbilduz eta jada eratuta dauden enpresak hazten edo hedatzen laguntzeko.

– Ekinbide egoitza sozial gisa baino erabiltzen ez duten enpresa berriak. Onartzeko, enpresa berrietarako erabilitako irizpide bereberei erreparatuko zaie, baina, kasu honetan, Ekinbide egoitza sozial gisa erabiltzean datza, enpresako jarduera egiteko espazio fisikorik gabe. Hala ere, 5. artikuluan deskribatutako zerbitzu partekatuak erabili ahal izango dituzte.

– Irabazpiderik gabeko elkarteak haien iharduera toki komunitatearen aldekoa denean.

2. Hautagai den entepresa txikia izan behar da, berau honako hau izanik: 10 langile baino gutxiago eta bi milloi eurotako baino gehiago ez duen urteko negozioa edota urteko balantze orokorra. Horrez gain, bere kapitalean ezin du ehuneko 25a baino gehiago parte hartu txikia edota ertaina den entepresa, beti ere Europako Batzordeak emandako 800/2008 Zuzentarauarekin bat etorri edo ordezkatzan duen arauak.

3. Era berean, baztertuta geratuko dira Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko erregelamenduaren ondoretarako jarduera kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsutzat jo daitezkeenak, baita zentroa behar bezala garatzea eta bertako elkarbizitza eragozten dutenak edota ingurumenean eragin kaltegarria dutenak ere, eta oro har zentroaren erabilerekin bateragarriak ez diren jarduerak.

4. Bertan sartutako enpresa guztiek udal araudian sartuta dauden segurtasun, osasungarritasun, soinu, ingurumen eta bestelako baldintzak bete beharko dituzte, baita alderdi horiek arautzen dituzten eta indarrean dauden legeetakoak ere. Hartara, erantzukizun adierazpena aurkeztu beharko du eta udal araudia bete beharko du indarrean dagoen araudiari loturiko guztian jarduera gauzatzeko.

### 13. Artikulua – Onuradunen betebeharrak

Enpresen zentro partekatuaren onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

– Bere kabuz gauzatzeko Ekinbide enpresen zentro partekatuaren zerbitzua ematea eragin duen enpresen jardueraren.

– Egokitzen jotzen badu, beste edozein motatako aseguru sinatzeko aukeran eragin gabe, derrigor izan beharko du erantzukizun zibileko asegurua, zehazki, 50.000 euro gutxienezko estaldurarekin.

– Onuradunak aipatu asegurua sinatu beharko du Ekinbide zentroan instalatu baino lehen, eta indarrean egon beharko du kostubidezko erabilerearen emakidaren indarraldiak irauten duen epe osoan.

– 2 hilabeteko epean gunea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonaren zenbatekoaren fidantza baliokidea aurkeztu beharko du, Ekinbide zentroko instalazioak behar bezala erabiltzeko, zehazki, Barrundiako Udalak baimendutako edozein formularen bidez.

– Gauzatu duen jardueraren gainean bere gain dituen karga eta zerga guztiak ordaintzea, orain edo gerora.

– Udaleko langile teknikoek eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea.

– Enpresako langileen gizarte segurantzari dagokion derrigorrezko kuota guztiak ordaintzea.

– Onuradunaren baldintza orokorrak aldatzeagatik zentroaren zerbitzua emateko eskubide gisa kontuan hartzeko orduan eragina izan dezaketen egoeren inguruan egon den edozein aldaketaren berri ematea.

– Berehala jakineraztea udaleko langile teknikoari zerbitzua ematean ikusten den edozein gorabehera.

– Kalteak jasan dituzten materialak edo azpiegiturak berriz jartzea.

– Udalak agintzen dituen konpontzeko, kontserbatzeko edo hobetzeko obrak egitea ahalbidetzea, baita zentroa garbitzea ere.

– Onuradunek bulegoak egoera ezin hobean mantenduko dituzte garbitasunari, kontserbazioari eta higiene baldintzei dagokienez, eta instalatutako enpresek ez dute baimenik izango salgaiak eta merkantziak leku edo gune partekatuetan uzteko, betiere pasillo edo pasabideak guztiz edo partzialki okupatzen badira – horretarako, uneoro garbi egon beharko du zentroak ondo funtzionatzeko-, eta material kaltegarriak, osasungaitzak, arriskutsuak edo erkidegoan eragozpenak eragin ditzaketenak ere ezingo dira bertan utzi.

– Hondakinak bereizi eta sailkatzea eta modu berezian uztea berariazko hodi biltzailean, bere kontura, eta, hala badagokio, enpresa homologatuekin hondakinak biltzeko eginiko kontratuak egitea. Euren jardueretatik eratorritako produktuak husten hirugarrenei eragindako kalte guztiak berariaz enpresariaren erantzukizunpekoak izango dira.

– Erabileraren iraupena amaitu ondoren, lagatako lokala itzuliko da laga zenean zuen egoera berean. Hartara, lokalean egin ahal izan duen erabilera axolagabearen edo gehiegi-zkoaren erantzulea izango da.

– Behar besteko errespetuz jokatzeko zentroaren kudeaketan esku hartzen duten langileei eta gainerako erabiltzaileei.

– Behar besteko aurrerapenez eskatzea erabili nahi diren zerbitzuak, zehazki.

#### **14. Artikulua – Debekuak**

Enpresariak debekatuta dauka:

– Ekinbide udal zentroan esleitutako lokalak erabiltzeko eskubidea errentan jartzea, lagatzea edo horiei karga ezartzea, guztiz edo zati batean, edozein titulugatik.

– Aipatu zentroan higiezin onartutako jardueretara eta ezaugarri teknikoetara egokitzen ez diren potentzia elektrikoko makinak, elementu teknikoak eta instalazioak sartzeko.

– Espazio horiek indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta gizaduintasunaren aurkako edozein diskriminazio sustatzen duten jarduerak egiteko erabiltzea. Halaber, debekatuta daude animalien gaitortasunak eta tratatu txarrak oinarri dituzten jarduerak.

– Edozein motatako obrak egitea, berariaz eta idatziz baimendutakoak izan ezik. Hor sartzen dira pintatzea, apaintzea edo Ekinbide Enpresen Zentro Partekatuen espazioei eragiten dieten errotuluak jartzea.

– Zentroko instalazioak emandako baimenean aurreikusitakoak ez diren xedeetarako erabiltzea; ezingo da helburua aldatu Barrundiako Udalak aurrez eta idatziz baimena eman gabe.

– Instalazioko gainerako erabiltzaileei eragozteko jokatzea eta jarrera desegokiek.

### IV. TITULUA. PROZEDURA

#### **15. Artikulua – Deialdia**

Deialdi publiko bat egingo da, bulego eta lokalak esleitzeko. Espazioak erabiltzeko prest dauden guztietan eta bulegoen eskariak hala aholkatzen duenean, deialdi berriak egin ahal izango dira.

#### **16. Artikulua – Eskaera**

Udal Zentroan sartzeko interesdunek eskaera aurkeztuko dute eredu normalizatuaren arabera. Hori udaletxean eskuratu ahal izango dute.

Eskaerarekin batera, honako hau aurkeztu beharko da:

Oro har

1. Enpresak garatzeko asmoa duen jardueraren plana (deskribapena, merkatua, inbertitzeko eta enplegua sortzeko aurreikuspena, finantzaketa, behin-behineko finantza-koadroak).

2. Onuradunaren curriculum vitaeak.

Eskaeraren unean enpresa sortuta egongo balitz

1. Pertsona fisikoa:

– IFZ.

– Alta gizarte segurantzako langile autonomoen erregimen berezia.

## 2. Pertsona juridikoa edo beste entitate batzuk:

– IFK.

– Enpresa eratzeko izkribau-agiria, edo, hala dagokionean, ituna, behar bezala izen emanda merkataritza erregistroan (beharrezko bada) eta ordezkarien egiaztapena.

Ordenantza honetan ustez gogoan hartutako guztientzat ezinbesteko baldintza izango da 19. artikulua arabera proiektuaren alderdi baloragarri eta puntuagarri guztiak justifikatzeko memoria eta agiriak ekartzea.

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 35.f) artikuluaekin bat, interesdunak aurkeztu beharreko edozein agiri Udalaren eskuetan badago, hori aurkeztetik salbuetsiko da, eta, ondorioz, aipatu dokumentua aurkeztu zen data eta organoa adierazi beharko du.

### 17. Artikulua – Eskaerak aurkeztea

Eskaerak ordenantza honetako 6. artikuluan adierazitako edozein entitate edo pertsonak aurkeztuko ditu, deialdian ezarritako epeen barruan eta legean aurreikusitako moduan.

### 18. Artikulua – Esleitzeko prozedura

Ordenantza honen helburua betetzeko aurreikusitako esleipena lehiaketaren bidez egingo da, salbu eragiketaren berezitasunagatik zuzenezko esleipena egiten bada (irabazpiderik gabeko elkarteek toki komunitatearen alde jokaten dutenean).

### 19. Artikulua – Eskaerak esleitzeko eta baloratzeko baldintzak eta irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onuragarriena zehazteko jarraituko diren irizpideak esleipena gauzatzeko oinarria izango dira. Honako hauek dira irizpideak, eta modu berean zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte. Era berean, modu objektiboan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan, eta ez da eskaintzaren prezioa soilik kontuan hartuko.

#### Ezinbesteko baldintzak

Proiektuek bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa frogatu beharko dute, negozio-plan batekin edo bideragarritasun-proiektu zehatz batekin.

Esleitzeko irizpideak eta eskaerak baloratzea (70 puntu).

a) Lagapenaren kanonaren prezioa eta abonua (5 puntu).

Lagapenaren-hartzaileak erabileraren lagapenaren edo errentamenduaren gutxieneko prezio edo kanon bat ordaindu beharko du, eta ezingo da ondasunen salmenta-balioaren ehuneko sei gehi dagokion BEZa baino gutxiago izan. Hori bera gorantz hobetu ahal izango du lizitzaileak. Udaleko arkitektoak egindako txostenaren arabera, lokalak urtean alokatzeko gutxiengo balioa 16,32 euro/m<sup>2</sup>-ko da.

b) Irizpide baloragarriak (65 puntu).

– Lanpostuak sortzea ekarriko duten proiektuak (20 puntura arte):

– Praktiketako eta prestakuntzarako kontratuak: 5 puntu kontratuko.

– Bekaduna: 5 puntu kontratuko.

– Aldi baterako kontratuak (gutxienez sei hilabete): 15 puntu kontratuko.

– Kontratu finkoak (bazkideen enplegua barne) edo sustatzaileena berena: 20 puntu kontratuko.

– Hainbat kontratu sinatzearekin 20 puntuko gehineko puntuazioa lortu ahal izango da.

– Gizartearen intereserako edo udalerrriaren intereserako bereziki garrantzitsuak diren proiektuak udalerrria edo eskualdea garatzeko ildo estrategikoekin bat datoze (20 puntu). Eskualdearen edo herriaren ildo estrategikotzat jotzen dira udalerriaz gaindiko entitateek diseinatutako garapen-plan estrategikoetan zehaztuta daudenak, bai eta enplegu-planetan edo herriko edo eskualdeko merkataritza-planetan daudenak ere.

– Proiektu berritzaileak (25 puntura arte) :

– Ezagutza zientifiko edo teknologikoari dagozkion produktu edo zerbitzu trinkoak garatu edo merkaturatzen badituzte (4 puntu).

– Ekoizpen eta/edo antolaketa diseinu edo metodo berriak sartzen badituzte (4 puntu).

– Helburua ikerketa arloa bada (4 puntu).

– Merkatu berri bat edo hornikuntza-iturri bat irekitzea ekartzen badu (4 puntu).

– Etengabe hobetzeko prozesuetan parte hartzea egiaztatzen duen kreditazioa edo kalitate-zurtagiria (9 puntu).

## **20. Artikulua – Proiektuen lehentasunak**

Guneak hautatzeko lehentasun-hurrenkera lortutako puntuazioaren arabera izango da; hala, puntuazio handiena duenak izango du lehentasun handiena eta txikiena duenak, berriz, txikiena.

Ordenantza honek zehaztuko dituen irizpideekin bat, hainbat proiektu puntuazio bera lortzen badute, honako irizpide hauek, lehentasun-hurrenkera horretan, kontuan hartuta desegingo da berdinketa.

1. Lanean sorkuntza eta egonkortasun handiena.

2. Gizartearen interesa edo udalerrriaren interes orokorra udalerrria edo eskualdea garatzeko ildo estrategikoekin bat etortzeagatik.

3. Berrikuntzaren arloan lan egiten dutelako.

## **21. Artikulua – Deialdiak eta ebazpena argitaratzea**

1. Alkateak onetsiko ditu deialdiak, eta jarraian iragarki-taulan, Udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratuko dira.

2. Zentroan sartzeko eskaerak erregistro orokorrean aurkeztuko dira, deialdian ezarritako epeen barruan, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dira bi kopian:

a) Eskaera-orria.

b) Enpresa eskatzaileko sustatzaile edo sustatzaileen izen-abizenak, bai eta beren helbide, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa ere. Proiektua garatzen dutenak bat baino gehiago badira, bozeramailea zein den adierazi beharko da.

c) Enpresaren plana. Sustatzaileak nahi bezain luzea izango da, behar bezala azaltzeko proiektuaren bideragarritasuna.

d) 19. artikulua arabera proiektuaren alderdi baloragarri eta puntuagarri guztiak justifikatzen dituzten memoria eta agiriak (enplegua sortzea, proiektuaren interes soziala eta orokorra, ikerketan, garapenean, berrikuntzan lan egitea, zentroko beste proiektu batzuekin konpromisoa, kalitate-prozesuak eta abar).

Eskaerek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, interesdunei eskatuko zaie eskaera-orria zuzentzeko edo betetzeko, 15 eguneko epean, eta argi ohartaraziko zaie hori egiten ez badute ulertuko dela eskaeran atzera egin dutela.

Proiektuak aztertzen diren denboran, behar adina datu exijitu ahal izango dira horiek behar bezala baloratzeko. Ezingo zaio udalari egotzi prozesuan atzerapenak egotea aipatu datuak berandu aurkezteagatik bada.

Administrazioaren isiltasunak eskaera gaitzetsi dela esan nahiko du.

3. Eskaerak jasota, Barrundiako Udalak txosten teknikoa egin ondoren, batzorde informatiboak aurkeztutako eskaerak baloratuko ditu, eta balorazio-proposamen bat bidaliko dio Udalbatzari. Azken honek izango du azken erabakia.

#### V. TITULUA. EKINBIDE IZENEN ZENTROAREN KUDEAKETA, IKUSKAPENA, UDAL ESKUMENAK ETA ZUZENDARITZA

##### **22. Artikulua – Kudeaketa eta administrazioa**

Ekinbide udal zentroa udaleko organo eskudunek kudeatu eta administratuko dute zuzenean, bai eta zentroa ikuskatu eta kontrolatu ere. Hala ere, Barrundiako Udalak, bere ahalmena baliatuz, akordio edo hitzarmenak lortu ahal izango ditu entitate publiko eta pribatuekin, zentroan eskaintzen diren zerbitzuak erraztuko eta hobetuko dituzten elkarlanerako ildoak ezartzeko. Akordio horiek, era berean, lagunduko dute kolektibo zehatz batzuek Ekinbide-n eskainiko diren zerbitzuak erabil ditzaten.

Udalbatzari honako hau dagokio:

- a) Guneak ekintzaileen behar berezietara egokitzeko baimena ematea.
- b) Bere titulartasunak dakartzan eskumenak.
- c) Zentroko espazioak esleitzean hori onestea eta ebaztea.
- d) Kontratuak interpretatzea eta horiek betetzeak dakartzan zalantzei irtenbidea ematea.

#### VI. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

##### **23. Artikulua – Zehatzeko ahalmenaren xedapen orokorrak**

Arau-hauste zigorgarriak dira ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako ekintza edo ez-egiteak, eta kasu bakoitzean zuzenbidearen arabera dagokion administrazio-erantzukizuna izango du.

Ordenantza honetan xedatutakoa ez betetzeagatik eratorritako erantzukizunak exijitzeko modukoak izango dira, ez bakarrik norberaren egintzengatik, baizik eta erantzun behar den horien egintzengatik, indarrean dagoen legeriarekin eta ordenantza honekin bat etorritik.

Hainbat erantzule badaude, eta ez bada posible zehaztea bakoitzak zein puntura arte parte hartu duen arau-hauste horretan, erantzukizun solidarioa izango dute. Era berean, kalteak hainbat pertsonak eginiko jarduera multzo batek eragin baditu, erantzukizuna eta horren ondorio ekonomikoak bakarka egotziko zaizkie, betiere posible bada jakitea bakoitzak zenbateraino parte hartu duen.

Arau-hausleei dagokien zehapenean eraginik izan gabe, hala badagokie, hondatutako errealtate fisikoa berrezartzeko edo lehengoratzeko betebeharra izango dute, eta araua hautsi aurretik zuen egoeran utzi beharko dute, bidezko zehapenak jarriko dituen organoaren ebazpenean zehaztuko den moduan eta baldintzetan.

Arau-hausleek ez badituzte berritze- edo lehengoratzeko lanak errekerimendu eskudunean adierazitako moduan edo epean egiten, isun hertsagarri eta errepikagarriak jartzea erabaki ahal izango da. Hori guztia, arau-hauslea bermearen zati bat edo osoa konfiskatzearekin zehatzeko eta baimena bertan behera geratzeko eta/edo indarrean dagoen araubideak ezartzea baimentzen duen beste neurri batzuetan eragin gabe.

Udalari dagokio instalazioak ikuskatzea; horretarako, kontuan hartu beharko du baimenetatik eta ordenantza honetako arauetatik eratorritako betebeharrak betetzen diren ala ez.

##### **24. artikulua – Arau hausteak**

Herriaren intereseko bizikidetzaren harremanetarako eta zerbitzuak, ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta espazio publikoak erabiltzeko antolamendu egokia izateko, dagozkien arau-hausteak sailkatuko dira, ordenantza honetan adierazitako betebeharrak, debeku eta mugak betetzen ez direnerako.

Arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak:

1. Arau hauste arinak:

- a. Nahasmendu bat sortzea lasaitasun egoera bat edo beste pertsonak lasai ari direnean edo hainbat jarduera edo Ekinbide zentroko zerbitzuak normal doazen egoera batean.
- b. Udaleko langile teknikoek eskatutako agiri guztiak emateko betebeharra ez betetzea.
- c. Hondakinak ez bereizi eta sailkatzea, edo hodi-biltzaile zehatzetan ez banatzea.
- d. Udal-langileenganako, zerbitzuak ematen dituztenenganako edo zentroarekin lotura zuzena edo zeharkako dutenenganako begirunerik eza.
- e. Ekipamenduei, azpiegiturei, instalazioei edo Ekinbide zentroari lotutako elementuei egitako kalteak.
- f. Osasungarritasun edo apaingarritasun publikoan nahastea eragitea.

2. Arau-hauste larriak.

Honako jokabide hauek arau-hauste larritzat hartuko dira:

- a. Ordenantza honen edo beste edozein udal-ordenantzaren testuinguruan administrazioaren baimena eskatzen duen jardueraren bat egitea baimen hori izan gabe edo baimen horren epea amaituta dago.
- b. Enpresen zentro partekatuari atxikitako instalazioak, altzariak edo beste elementu batzuk baimenik gabe mugitzea, lekualdatzea edo aldatzea.
- c. Ekinbide zentroari atxikitako hornikuntza, azpiegitura, instalazio edo beste elementu batzuk larri eta nabarmen hondatzea.
- d. Barrundiako Udalak egin beharreko ikuskatze eta zaintza lanak eragozte eta larriki zatitzea.
- e. Udal-langileenganako, zerbitzuak ematen dituztenenganako edo zentroarekin lotura zuzena edo zeharkakoa dutenenganako begirunerik eza handia.
- f. Lokala batez ere biltegi gisa erabiltzea salgaiak, materiala edo lehengaiak gordetzeko.
- g. Baimenik gabe Ekinbide zentroko edozein altzari, ekipamendu edo azpiegitura funtsean aldatzen dituen obrak egitea.
- h. Ekinbide zentroaren irudi-protokoloa aldatzen duen edo errespetatzen ez duen publizitate edo merchandising elementuak baimenik gabe erabiltzea.
- i. Urtebeteko epean hiru hutsegite arin egitea.

3. Arau hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honako jokabide hauek:

- a. Elkarbizitzan nahasmendu nabarmena eragitea, hain zuzen beste pertsona batzuen lasaitasuna edo beren legezko eskubideez baliatzea larriki, berehala eta zuzenean eragozten duena, eta aplikatzekoa den araudiarekin bat datozen era guztietako jardueren ohiko garapenari zein osasungarritasun edo apaingarritasun publikoei eragiten dienean, betiere Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Legeko IV. Kapituluan aurreikusitako jokaera motetan sartutakoak ez badira.
- b. Beste pertsonaren batek edo batzuek zerbitzu publikoren bat erabiltzeko eskubidea izan arren hori eragozte.
- c. Zerbitzu publikoren baten ohiko jarduera eragotzi edo larriki eta nabarmen oztopatzea.
- d. Zerbitzu publikoren bateko ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak edo osagaiak larri eta nabarmen hondatzen dituzten egintzak.

e. Espazio publikoak zein bertako instalazioak eta osagaiak, bai higigarriak zein higiezinak, larriki eta nabarmen hondatzen dituzten egintzak, herritarren segurtasuna nahasterik sortu ez badira.

f. Udal-langileenganako, zerbitzuak ematen dituztenenganako edo zentroarekin lotura zuzena edo zeharkako dutenenganako begirunerik eza oso larria edo eraso.

g. Urtebetean hiru arau-hauste larri egitea.

h. Ordenantza honetan aurreikusitako edozein xedapen ez betetzea.

### **25. Artikulua – Zehapenak**

Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera sailkatutako zehapenak, ordenantza honetan ezarritakoaren edo aplika daitekeen legeriaren arabera exijitu daitezkeen beste mota bateko erantzukizunak gorabehera, honako honen arabera zehaztuko dira.

Arau-hausteengatik jasotako isunak zenbateko hauetakoak izango dira:

- Arau-hauste arinak: 750 euro arte.
- Arau-hauste larriak: 1500 euro arte.
- Arau-hauste oso larriak: 3000 euro arte.

### **26. Artikulua – Preskribatzea**

Arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-epeak arauk zehazten dituztenak izango dira:

Arau-hausteak.

Honako hauek ez badituzte preskripzio-epeak zehazten:

- Arau-hauste oso larriak hiru urtetara preskribatuko dira.
- Arau-hauste larriak bi urtetara preskribatuko dira.
- Arau-hauste arinak sei hilabetetara preskribatutako dira.

Zehapenak

- Arau-hauste oso larriengatik jarritako zehapenak hiru urtetara preskribatuko dira.
- Arau-hauste larriengatik jarritako zehapenak bi urtetara preskribatuko dira.
- Arau-hauste arinengatik jarritako zehapenak, urtebetera.

Arau-hausteen preskripzio epea araua hausten den egunetik bertatik aurrera zenbatuko da.

Arau-hausteak jarraian egin badira, epea arau-haustearen azken gertaera egin zenetik edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik aurrera hasiko da zenbatzen.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da Udalak behin betiko onetsitako testu osoa ALHAOn argitaratu eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren, aipatutako Legearen 70. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Ozaetan, 2015eko urtarrilaren 9an

*Alkatea*

*AFRO OLABE MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ*